

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN ETA KONTSUMO SAILA

3835

160/2011 DEKRETUA, uztailaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren baliabide pertsonalak eta materialak Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari atxikitzeko baldintzak arautzen dituena.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeko ekainaren 29ko 9/2007 Legeak, institutu hori sortu eta arautu egiten du administrazioako erakunde autonomo gisa, berezko nortasun juridikoa eta autonomia administratibo eta ekonomikoa izanik, bai eta bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasun osoa ere.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoari kontsumoaren arloan dagozkion eskumenak Eusko Jaurlaritzak gauzaten ditu, Osasun eta Kontsumo Sailaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta sail horien egitekoak eta jardun-eremuak finkatzeko lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuak 13. artikuluan ezarritakoa betez.

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortu eta gero, ezinbestekoa da orain, Kontsumobideri egokituko zaizkion zereginak eta eskumenak gauzatzeko ardura duten langileak hari atxikitzea, modu horretan baino ezingo dituelako egin orain arte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak kontsumoaren arloan atxikita dituen eskumenak eta egitekoak, eta eman, dagozkion zerbitzuak, orain arte Osasun eta Kontsumo Sailak eman dituen eraginkortasun eta kalitate berberarekin.

Helburu horrekin, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzeko ekainaren 29ko 9/2007 Legeak, hirugarren xedapen gehigarrian hau ezarri zuen: «Gobernu Kontseiluak, dekretu bidez, egokitu egingo du kontsumo arloko eskumena duen sailaren egitura organikoa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari beharrezko dituen eginkizunak eta giza baliabideak izendatzeko, lege honek eta legearen garapeneko xedapenek izendatzen dizkioten helburuak betetze aldera, eta horrez gainera, beharrezko dituen ondasunak eta bitarteko materialak atxikiko dizkio».

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren kargu utzitako zereginak egiten dituzten lanpostuetako langileak euren zerbitzua institutuan ematera pasatuko dira, eta ez dute inolako aldaketarik izango Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekin lotzen dituen erlazio juridikoan.

Bestetik, dekretuak arautzen du Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari subrogatuko zaizkiola institutu horri dagokion egiteko eta eskumenen arloan gaur egun Osasun eta Kontsumo Sailak onartuta dituen kontratu eta hitzarmenetan jatorria duten erlazio juridiko subjektibo, eskubide eta betebeharrak. Era berean, espedienteak transferitzea, eta ondasun higigarriak eta higiezinak eta ibilgailuak atxikitzea ere arautzen da. Hori guztia eskumenak eta egitekoak modu arin eta eraginkorrean transferitu daitezzen, eta modu horretan, zerbitzuak etenik gabe ematen jarraitu dadin, hain zuzen ere, hemendik aurrera Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak emango dituen zerbitzuak, abian jartzen den unetik beretik, ematen jarraitzeko.

Ondorioz, Osasun eta Kontsumoko sailburuak proposatuta, Gobernu Kontseiluak 2011ko uztailaren 12an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren jarduerari hasiera ematea.

Bere egitura eta antolaketa dekretuak ezarritakoaren arabera, 2011ko irailaren 1ean jarriko da abian Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua.

2. artikulua.– Langileak atxikitzea.

1.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari atxikitzen zaizkio Kontsumo Zuzendaritzako lanpostuak eta kontsumoaren alorretan kontsumoko zereginak egitea esleituta dituzten lanpostuak. I. eranskinean jaso dira lanpostu horien zerrenda eta lanpostuetara atxikita dauden langileena. Institutuari atxikitako lanpostu hutsak ere eranskin berebean –I. eranskinean– zerrendatu dira.

Gaur egun lanpostu horiek betetzen dituzten funtzionarioak, karrerakoak zein bitartekoak izan, eta lan-kontratupekoak Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuan txertatzen dira, eta eutsi egingo die onartuta zituzten eskubide guztiei, antzinasunari ere bai. Langileen zerrenda dekretu honen I. eranskinean jaso da.

2.– Langile horiek EAeko Administrazio Orokorrarekin duten loturak ez du aldaketarik izango Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuan sartzegatik, eta, beraz, atxiki zituzten unean zuten administrazio-egoera berebean jarraituko dute langile horiek. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren funtzio publikoa arautzen duen arautegiak zuzenduko ditu langile horiek.

3.–Aurreko puntuan aipatutako lanpostuen jabe diren funtzionarioak ez badira ari euren lanpostua betetzen, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko beste lanposturen bat betetzen ari direlako edo lanpostua gordetzeko eskubidea ematen duen egoeraren batean daudelako, dauden egoera horretan jarraitu ahal izango dute, eta egoera hori uzten dutenean orain Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuan dagoen lanpostuan hasi beharko dute. Langile horien zerrenda, I. eranskinean jaso da.

4.– Bitarteko funtzionarioek lanpostuen titularra hasi, hutsik dagoen lanpostua arauz bete edo lanpostua ezabatu arte iraungo dute lanpostu horietan, eta amaitutakoan, Administrazio Orokorraren aldi baterako zerbitzuak emateko lan-poltsetara itzuliko dira. Jardunean egindako denbora hori kontuan hartuko zaie lan-poltsen baremazioa egiten denean.

3. artikulua.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua subrogatzea.

1.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua subrogatzen da institutu horri dagokion egiteko eta eskumenen arloan gaur egun Osasun eta Kontsumo Sailak onartuta dituen kontratu eta hitzarmenetan jatorria duten erlazio juridiko subjektibo, eskubide eta betebeharrorotan.

2.– Osasun eta Kontsumo Sailak Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari dagozkion zereginak aurrera eramateko eginda dituen kontratuen subrogazioa dagokion emate- eta onartze-aktaren bidez gauzatuko da. Akta hori Osasun eta Kontsumo Saileko Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorraren zuzendariak eta institutuko zuzendariak sinatuko dute. Akta horretan jasoko dira ordaintzeke edo kobratzeke dauden zenbatekoak.

3.– Osasun eta Kontsumo Sailak, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari esleitutako zereginak aurrera eramateko abian jarrita dituen kontratazio-espediteteei dagokienez, institutua funtzionamenduan jartzeko egunean izapidetzen ari badira, sailak jarraituko du egin beharreko

jarduerak egiten, kontratua formalizatu arte. Kontratua formalizatzen denean egingo da subrogazioa, eta jarriko da Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sailaren lekuan, kontratua gauza dadin.

4.– Aurreko idatzi-zatietan jasotako egoeretan, Ekonomia eta Ogasun Sailak beharrezko baliabide ekonomikoen transferentziak egingo ditu, hala behar bada.

4. artikulua.– Espedienteen izapidetzea eta eskualdaketak formalizatzea.

1.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari dagokio bere eskumenei buruzko espedienteak, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren jarduerak abian jartzeko egunean amaitzeke daudenak, ebaztea eta gauzatzea.

2.– Dagokion emate- eta onartze-aktaren bidez formalizatuko dira Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren eskumenekoak diren espedienteen eskualdaketa, eta Ekonomia eta Ogasun Sailak espediente horiek kudeatzeko beharrezko diren baliabide ekonomikoen transferentzia egingo du, hala badagokio. Emate- eta onartze-akta Osasun eta Kontsumo Sailaren Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorrerako zuzendariak eta institutuaren zuzendariak sinatu behar dute.

5. artikulua.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren ondasun higiezinak.

Euskadiko Ondarearen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuak 61. artikuluan xedatutakoa betez, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari atxikiko zaizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren titulartasunekoak izan eta hemendik aurrera institutu horrek emango duen zerbitzu publikoari dagozkion ondasun higiezinak. Dekretu honen II. eranskinean zerrendatu dira zer ondasun diren, bai eta higiezin horietan jarriko diren ondasun mugikor guztiak ere. Era berean, II. eranskin horretan Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde-zerbitzuak kokatuko diren higiezinak ere zerrendatu dira, baina ez dira adskribituko.

6. artikulua.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren ibilgailuak.

Une honetan Administrazio Orokorraren ibilgailuen atalari atxikita dauden ibilgailuak eta hemendik aurrera Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuak egin behar dituen administrazio-zereginetarako erabiltzen direnak, erakunde autonomo horri atxikiko zaizkio. Ibilgailuen zerrenda dekretu honen III. eranskinean jaso da.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.– Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuko lanpostu-zerrenda indarrean sartzen ez den bitartean, eta lanpostu horiek estaltzeko, Osasun eta Kontsumo Sailaren Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak emango du Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren kargu dauden zereginak behar bezala gauzatzeko beharrezko laguntza.

Bigarrena.– Dekretu honetan jasotako langileek, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutura atxikitzeko unean, nomina aurrerapenak kitatu eta likidatu zain badaude, horiek izaten jarraituko dute, onartu zitzaieneko baldintza berberetan.

2011ko abuztuaren 2a, asteartea

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean sartzea.

Dekretu hau indarrean sartuko da eta ondorioak izaten hasiko, 2011ko irailaren 1eko egunetik beretik.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko uztailaren 12an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Osasun eta Kontsumoko sailburua,
JAVIER RAFAEL BENGOA RENTERÍA.

2011ko abuztuaren 2a, astearta

I. ERANSKINA, UZTAILAREN 12KO 160/2011 DEKRETUARENA

Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutura adskribitutako funtzionarioak

Destinoa	Lanpostua	Dot.	Lanpostuaren deskribapena	B.O.	D.O.	1. maila	Kidegoa	Titularra	Ardura/aldia	Maila	E.Erl.	Administra. egoera banakaturia	Kargu-uztearen zergatia, banakaturia	B.O.P.
Vitoria-Gasteiz	511061	1	Kontsumoko arduraduna	II-B	27	26	A02EU46	Teresa Garcia Castaño	100	25	a	Zerbitzu-eginkizunetan		
Vitoria-Gasteiz	511061	2	Kontsumoko arduraduna	II-B	27	26	A01EU	Maria Arrate Martinez de Guereñu Ortuste	100	25	a	Zerbitzu-eginkizunetan		
Vitoria-Gasteiz	511062	1	Merkat. eta kontsumoko koord.	II-B	27	26	A02EU10	Ignacio Ruiz Fernandez	100		i	Bitarteko funtzi.		
Donostia-San Sebastián	511062	2	Merkat. eta kontsumoko koord.	II-B	27	26	A03EU	Jose Manuel Odrizola Csadenyi	100	25	a	Titularra		
Bilbo	511062	3	Merkat. eta kontsumoko koord.	II-B	27	26	A01EU	Joseba Xabier Alberdi Lazkurain	100	29	a	Titularra		Bai
Vitoria-Gasteiz	510060	136	Aholkulari juridikoa	III-C	25	23	A02EU10	Fernando Valdes Larrañaga	100		i	Bitarteko funtzi.		
Bilbo	510060	140	Aholkulari juridikoa	III-C	25	23	A02EU10	M.ª Concepcion Samaniego Ruiz de Infante	100	25	a	Titularra		
Vitoria-Gasteiz	510060-	155	Aholkulari juridikoa	III-B	25	24	A02EU10	M.ª Teresa Liantada Iglesias	100	25	a	Titularra	Zerbitz. berezi.	
Vitoria-Gasteiz	510060-	155	Aholkulari juridikoa	III-B	25	24	A02EU10	M.ª Teresa Ruiz de Arcaute Zulueta	100		i	Bitarteko funtzi.		
Vitoria-Gasteiz	510060	156	Aholkulari juridikoa	III-B	25	24	A02EU10	Maria Aberasturi Miranda	100		i	Bitarteko funtzi.		
Donostia-San Sebastián	510060	158	Aholkulari juridikoa	III-C	25	23	A02EU10	Nerea Carrera Odrizola	100	25	a	Titularra	Zerbitz. egink.	
Donostia-San Sebastián	510060	158	Aholkulari juridikoa	III-C	25	23	A02EU10	Esther Etxeberria Arano	100		a	Bitarteko funtzi.		
Vitoria-Gasteiz	510060	189	Aholkulari juridikoa	III-C	25	23	A02EU10	Margarita González de Heredia López de Sabando	100		i	Bitarteko funtzi.		
Vitoria-Gasteiz	511020	3	Prestakuntzako eta dokumentazioko kudeatzailea	III-B	25	24	A01EU	Maria Arrate Martinez de Guereñu Ortuste	100	25	a	Titularra	Zerbitz. egink.	

2011ko abuztuaren 2a, asteartea

Destinoa	Lanpostua	Dot.	Lanpostuaren deskribapena	B.O.	D.O.	1. maila	Kidegoa	Titularra	Arduraldia	Maila	E.Erl.	Administra. egoera banakaturia	Kargu-uztearen zergatia, banakaturia	B.O.P.
Vitoria-Gasteiz	511020	3	Prestakuntzako eta dokumentazioko kudeatzailea	III-B	25	24	A01EU	Miren Nekane Ribado Vitorica	100		i	Bitarteko funtzi.		
Vitoria-Gasteiz	511060	1	Kontsumo teknikaria	III-B	25	24	A03EU	Esther Gomez Calahorra	100	25	a	Titularra		
Vitoria-Gasteiz	511060	2	Kontsumo teknikaria	III-B	25	24	A03EU	Rosa M.ª Guelbenzu Arsuaga	100	25	a	Titularra		
Vitoria-Gasteiz	511060	3	Kontsumo teknikaria	III-C	25	23	A01EU	Gorka Gonzalez de Zarate Ruiz	100	25	a	Titularra	Zerbitz. egink.	
Vitoria-Gasteiz	511060	3	Kontsumo teknikaria	III-C	25	23	A02EU10	Ainize Rodrigo Goikoetxea	100		i	Bitarteko funtzi.		
Donostia-San Sebastián	511060	4	Kontsumo teknikaria	III-C	25	23	A01EU	Eusebio Larrañaga Mendizabal	100	25	a	Zerbitzu-eginkizunetan		
Bilbo	511060	5	Kontsumo teknikaria	III-C	25	23	A02EU10	Miguel Angel Bodegas Cañas	100	23	a	Titularra		
Vitoria-Gasteiz	511760	26	Artxiboko, liburutegiko eta dokumentazioko teknikari.	III-C	25	23	A02EU42	M.ª Elena Revilla Lopez	100	25	a	Titularra	Zerbitz. egink.	
Vitoria-Gasteiz	511760	26	Artxiboko, liburutegiko eta dokumentazioko teknikari.	III-C	25	23	A02EU42	Santiago Llamas Fernandez	100	28	A	Behin-behinean atxikita		
Bilbo	510890	48	Admin. gest. teknikaria	IV-C	23	21	A03EU	Victoria Leandro Mendez	100	23	a	Titularra		
Vitoria-Gasteiz	511770	1	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A05EU	Miguel Maria Chouza Malla	100	22	a	Titularra		
Vitoria-Gasteiz	511770	2	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A07EU	M.ª Oro Echebarria Landa	100	19	a	Titularra		
Vitoria-Gasteiz	511770	3	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A07EU	Mikel Albaina Troya	100		l	Bitarteko funtzi.		
Vitoria-Gasteiz	511770	6	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A05EU	M.ª Piedad Gonzalez Perez	100	22	A	Titularra		
Vitoria-Gasteiz	511770	7	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A07EU	M.ª Elena Ullivarri Bazan	100	19	a	Titularra		
Donostia-San Sebastián	511770	8	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A07EU	David Narbarte Martikorena	100		a	Bitarteko funtzi.		
Donostia-San Sebastián	511770	9	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A07EU	M.ª Encarnacion Marcilla Catalan	100	19	a	Titularra		
Donostia-San Sebastián	511770	10	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A05EU	M.ª Paz Unanue Lopez	100	22	a	Titularra		

2011ko abuztuaren 2a, asteartea

Destinoa	Lanpostua	Dot.	Lanpostuaren deskribapena	B.O.	D.O.	1. maila	Kidegoa	Titularra	Arduraldia	Maila	E.Erl.	Administra. egoera banakaturia	Kargu-uztearen zergatia, banakaturia	B.O.P.
Donostia-San Sebastián	511770	11	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A07EU	Ismael Perez Redondo	100	19	a	Titularra		
Donostia-San Sebastián	511770	12	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A07EU	M.ª Jose Pilarre Martinez	100	19	a	Titularra		
Donostia-San Sebastián	511770	13	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A07EU	Estanislao Echeverria Saez	100	19	a	Titularra		
Bilbo	511770	16	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A07EU	Julen Mikel Eiguea Isasi	100	19	a	Titularra		
Bilbo	511770-	17	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A03EU	Kepa Mirena Miñambres Liona	100	23	a	Titularra	Zerbitz. egink.	
Bilbo	511770-	17	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A05EU	Begoña Laka Mugarza	100	20	a	Zerbitzu-eginkizunetan		
Bilbo	511770-	19	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A07EU	Igone Elexpe Uriarte	100	19	a	Titularra		
Bilbo	511770-	20	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A07EU	Kepa Andoni Iturralde Mogro	100	19	a	Titularra		
Bilbo	511770-	21	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A03EU	Jose Manuel Mendez Hernandez	100	23	a	Zerbitzu-eginkizunetan		
Bilbo	511770-	24	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A03EU	Julia Fernandez Perez	100	23	a	Titularra		
Bilbo	511770	25	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A07EU	Jose Ignacio Urteaga Galdeano	100	22	a	Zerbitzu-eginkizunetan		
Bilbo	511770-	26	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A03EU	Jose Manuel Mendez Hernandez	100	23	a	Titularra	Zerbitz. egink.	
Bilbo	511770-	26	Merkat., kontsu., eta turismoko ikuskatzailea	IV-B	23	22	A05EU	Itziar Leikerika Dañobeitia	100	20	a	Zerbitzu-eginkizunetan		
Vitoria-Gasteiz	520010-	107	Goi karguen idazkaria	VI-A	18	18	A07EU	Jose Alberto Eiguea Bilbao	100	18	a	Titularra		
Vitoria-Gasteiz	520040-	309	Admin. orok.	VI-B	18	17	A07EU	Marta Esther Axpe Armentia	100	18	a	Titularra	Zerbitz. egink.	
Vitoria-Gasteiz	520040-	309	Admin. orok.	VI-B	18	17	A07EU	Jon Sarasola Beristain	100	18	a	Zerbitzu-eginkizunetan		
Vitoria-Gasteiz	520040-	311	Admin. orok.	VI-A	18	18	A07EU	M.ª Victoria Fernandez Arguelles	100	18	a	Titularra		
Vitoria-Gasteiz	520040-	312	Admin. orok.	VI-B	18	17	A07EU	M.ª Mar Martinez Fortun Alonso	100	18	a	Titularra	Zerbitz. egink.	
Vitoria-Gasteiz	520040-	312	Admin. orok.	VI-B	18	17	A07EU	M.ª Jesus Lorenzo Iglesias	100		i	Bitarteko funzi.		

2011ko abuztuaren 2a, asteartea

Destinoa	Lanpostua	Dot.	Lanpostuaren deskribapena	B.O.	D.O.	1. maila	Kidegoa	Titularra	Ardura/ldia	Maila	E.Erl.	Administra. egoera banakaturia	Kargu-uztearen zergatia, banakaturia	B.O.P.
Donostia-San Sebastián	520040-	314	Admin. orok.	VI-A	18	18	A07EU	Raquel Blades Cruz	100	18	a	Com. Ser.		
Bilbo	520040-	318	Admin. orok.	VI-A	18	18	A07EU	M.ª Jesus Amigo Muñoz	100	18	a	Titularra		
Bilbo	520020	7	Laguntzaile orokorra	VII-B	16	15	A07EU	Txomin Iturbe Zulaica	100	16	a	Titularra		Bai
Vitoria-Gasteiz	520020-	824	Laguntzaile orokorra	VII-B	16	15	A07EU	Miren Ikeme Argarate Iriondo	100	16	a	Titularra		Bai
Donostia-San Sebastián	520020-	826	Laguntzaile orokorra	VII-B	16	15	A07EU	M.ª Victoria Mitxelena Iparragirre	100	16	a	Titularra		Bai
Vitoria-Gasteiz	520020	830	Laguntzaile orokorra	VII-B	16	15	A07EU	Itziar Elkoro Billazian	100	16	a	Titularra	Zerbitz. egink.	
Vitoria-Gasteiz	520020	830	Laguntzaile orokorra	VII-B	16	15	A07EU	Kamele Gutierrez Caldito	100	--	i	Bitarteko funzi.		

2011ko abuztuaren 2a, asteartea

II. ERANSKINA, UZTAILAREN 12KO 160/2011 DEKRETUARENA

A) Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutura atxikiko diren ondasun higiezinak

Izena eta erabilera	Kokalekua eta helbidea	Egoera juridikoa
Kontsumoko Gasteizko prestakuntza zentroa	Adriano VI 20, 1. solairua. 01008 Vitoria-Gasteiz	Jabetza
Kontsumoko Bilboko prestakuntza zentroa	Nikolas Alkorta 2, 1.a 48003 Bilbao	Jabetza
Kontsumoko Donostiako prestakuntza zentroa	Zarategi pasealekua, erdi-sofoa, 82., 84., 86, eta 88. etxeak (E3/0012-900103-A lokala) 20015 Donostia-San Sebastián	Jabetza

B) Beste higiezin batzuk

Izena eta erabilera	Kokalekua eta helbidea	Egoera juridikoa
Bizkaiko Lurralde Zerbitzua	Recalde zumarkalea 39A, 4.a 48008 Bilbao	Osasun eta Kontsumo Sailari atxikitako eraikina
Gipuzkoako Lurralde Zerbitzua	Easo kalea 10, 5.a eta 6.a 20006 Donostia-San Sebastián	Kudeaketa-erakin zentralizatua

2011ko abuztuaren 2a, asteartea

III. ERANSKINA, UZTAILAREN 12KO 160/2011 DEKRETUARENA

Kontsumo Zuzendaritzako eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako kontsumo-olorretako ibilgailuak, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutura adskribituko direnak

ARABAKO KONTSUMOKO ALORRA						
Matrikula	Marka	Modeloa	Matrikulatze-data	Lurraldea	Unitatea	
5987 DNR	Citroen	C3	2005-08-02	Araba	Arabako bulegoa	
1247 CCH	Renault	Clio	2002-11-29	Araba	Arabako bulegoa	
6827 BCC	Peugeot	206	2000-10-30	Araba	Arabako bulegoa	
BIZKAIKO KONTSUMOKO ALORRA						
Matrikula	Marka	Modeloa	Matrikulatze-data	Lurraldea	Unitatea	
6829 BCC	Peugeot	206	2000-10-30	Bizkaia	Bizkaiko bulegoa	
3794 CCH	Renault	Clio	2002-11-29	Bizkaia	Bizkaiko bulegoa	
3563 CYV	Renault	Clio	2004-07-29	Bizkaia	Bizkaiko bulegoa	
GIPUZKOAKO KONTSUMOKO ALORRA						
Matrikula	Marka	Modeloa	Matrikulatze-data	Lurraldea	Unitatea	
0100 FDN	Citroen	C3	2006-07-31	Gipuzkoa	Gipuzkoako bulegoa	
1747 CPX	Renault	Clio	2003-12-26	Gipuzkoa	Gipuzkoako bulegoa	
3649 CYV	Renault	Clio	2004-07-29	Gipuzkoa	Gipuzkoako bulegoa	
6828 BCC	Peugeot	206	2000-10-30	Gipuzkoa	Gipuzkoako bulegoa	